

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure enpresak ekoizpena izango du jarduera nagusi, izan ere, gure helburu nagusia produktu bat sortzea eta ekoiztea da eta ez diogu produktua beste enpresaren bati erosiko. Lehenik aterkina diseinatuko dugu eta hainbat prototipo egingo ditugu. Erosoena aukeratu eta modelo horren ekoizpenarekin hasiko gara.



Horrez gain, aterkinak ekoitzi ostean, hauek saltzeko hainbat modu erabiliko ditugu, batzuk dendetan salduko ditugu eta beste batzuk gure webgunean. Hortaz, aterkinak ekoizteaz gain, webgune bat sortu beharko dugu. Horren bidez, sareko jarduera egingo dugu, webgunea erabiliko dugu aterkinak saltzeko. Webgune honek aurrera egin dezan mantendu egin beharko dugu eta ahalik eta ondoen joateko ahalegina egin beharko dugu, bezeroentzat erraza izan daiten bertan erostea.

Azkenik, arazoak konpontzeko jarduera izango du gure enpresak. Bezero bati aterkina apurtzen bazaio, bermearen (garantia) epea ez bada pasatu, beste bat eskatu ahal izango du. Bezeroak nahi badu, bere aterkina konpontzera eraman dezake. Horretarako, gure enpresak ordezeko pieza batzuk saldu ditzake, aterkina konpondu ahal izateko.